

“Ez dut baztertzen etorkizuneko Errepublika katalanaren presidente izatea”

Artur Mas (TV3n).

argia.eus/multimedia



“Klima aldaketa, lan suntsitzailerik handiena”

Asbjørn Wahl sindikalista norvegiarra, klima aldaketaren erronkari modu egokian aurre egiteko sindikatuen rol garrantzitsuaz aritu da.



Hertzetan #8

Joseba B. Lenoir eta Gakobeltzak, *Eguzkietara begietara* so disko berria aurkezten. Joseba Baleztena, Miren Narbaiza eta Ander Mujika.



ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS

Babes eta ekimen berriak batu dira herri galdeketetara

Argia
@argia

Gure Esku Dago egitasmoaren baitan, euskal estatuari buruzko galdeketa egingo dute Barrikan, Lemoizen, Urdulizen eta Sopelan. Hala iragarri du Uribe Kostako elkarte sustatzaileak. Eskualdeko herri gehiagok parte hartu nahi badute, atea irekita dituztela gaineratu dute. 2017ko apirilaren 2an egingo dute herri galdeketa.

Sindikatuak, galdeketekin bat

Datorren ekainaren 5ean egingo dira lehenengo herri galdeketak, Azpeitia, Goierri, Debagoiena, Aramaio eta Ispasterren. Kontsulta horiekin bat egin dute ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta USO sindikatueta ordezkariek:

“Elkarrizketan jardutea, eztabaidatzea, aurrez aurre jartzea, hausnartzea... eta azkenean jendeari galdetzea normalena delako. Galdetzea da ditugun aferei buruz erabakitzeke modurik onena, arazoak konpontzeko, beren elkarbizitza antolatzeke nahiz aurrera begirako erronkei heltzeko”. Galdetuak izatea eta kolektibo gisa erabakitzea “kohesiorako eta erantzukizunetz jokatzeko ariketa ezin hobe da. Gure bizitzak gure esku hartzen baititugu”, adierazi dute.

Debagoienan, 9.139 sinadura

Bestalde, Erain Debagoiena elkartek jakinarazi du galdeketa egiteko beharrezkoak ziren 6.500 sinadurak gainditu eta guztira 9.139 sinadura jaso direla.

“Debeku maila jasanezinetara iristen ari gara”

MERCÈ ALCOGER, CATALUNYA RÀDIOKO KAZETARIA

Mozal Legearen azken biktima da Alcocer. 601 euroko isuna jarri diote “autoritatea desobeditzeagatik”, eta isunaren aurkako helegitea jartzea erabaki du irrati kateak. Pasa den otsailaren 20an, Jordi Pujol auzia jarraitzen ari zela, “gehiegizko neurriak” hartu zituen poliziak, eta kazetariak ez zieten abokatu eta fiskalengana hurbiltzeko aukerarik utzi. Alboko kale batetik auzitegiko sarrerara joan zen Alcocer, eta orduan dokumentazioa eskatu zion poliziak. “Hedabideetako profesionalok gure lana aske egitea galarazten digu egoera honek. Gure lanari bakarrik ez, herritarrek informatzeko duten eskubideari ere eragiten dio”. **PUBLICO (2016-05-21)**

